



Kontxi Urkiri Altzibar

*Mutriku,
Gipuzkoa
(1942)*

Aurkibidea

Biografia



Mutrikuko Buztiña baserrian
jaioa. Ahizpa bat du. Gurasoei
entzundako gerra garaiko
kontuak jasotzeko egin
zitzaion elkarrizketa.

Zintak

MUT-086

- **Proiektua:** Mutrikuko gerra zibilaren memoria

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrizabalaga, Nerea - Ugarte, Arantza
- **Data**: 2021-06-26
- **Iraupena**: 43 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Sapsiotham, Itziar
- **Emalea**: Arrizabalaga, Nerea

Pasarteak

1. Aita, Sasetako Langile Bataioilian

- **Erref**: MUT-086/004
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:01:07. **Bukatu**: 00:02:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gernikako bonbardaketan aita Gernikan zegoen eta menditik ihes egin behar izan zuen. Bilbo jausi zenean, Kontxiren aita Saseta Langileen Bataioian egon zen hiru urtez lanean, Llerenan, Extremaduran. Mutrikura bueltatu zenean, igandero joan behar zuen kuartelera sinatzera. Extremaduran bideak egiten ibili ziren eta hildako ugari egon ziren. Bide ertzean hilobiratzen zituzten.

2. Soldadu ezezagunaren hilobia I

- **Erref**: MUT-086/006
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:03:04. **Bukatu**: 00:05:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Frontea Itziar inguruan zegoen, Ollokin. Kontxiren osaba erretiran zegoela, bala galdu batek ustez Goierri aldekoa zen soldadu bat hil zuen eta Debara parte ematera joan zirenean, hango alkateak esan zien haien bandokoa ez bazen ez zuelako hilobiratuko. Ordurako ziurrenik Deba nazionalek hartuta zeukaten. Azkenean, Kontxiren osabak eta beste batek, hildakoa hilobiratu zuten han bertan zulo bat eginez eta gainean harriak jartzen. Osabak Francisco Korostola Salegi zuen izena. Beti ezagutu dute gorpu hori hor eta harriek hor jarraitzen dute.

3. Frontera trikitia jotzen

- **Erref**: MUT-086/007
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:05:49. **Bukatu**: 00:07:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Soldadu txarrenak nafarrak omen ziren, karlistak. Osabaren etxean sartu

zirenean, pistolaz mehatxatu zioten soldaduek. Osabak Eibarren lan egiten zuen baina eskuan istripu bat izan zuen eta baserrira bueltatu zen. Aitak ez zekien gerra zer zen eta frontera trikitiarekin joan ziren.

4. Osaba Ondarretan fusilatua

- **Erref:** MUT-086/009
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:07:52. **Bukatu:** 00:09:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Baserrri ondotik pasatzen ziren tropak. Kontxiren izeba baten senarra, Tomas Rodriguez, fusilatu egin zuten. Ika-mikaren baten ondorioz Ondarretara eraman zuten preso eta han fusilatu zuten.

5. Baserrian ez dute goserik pasatu

- **Erref:** MUT-086/011
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:11:08. **Bukatu:** 00:11:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gurasoak 1941ean ezkondu ziren eta urtebetera jaio zen Kontxi. Miseria zegoen, baina baserrian ez zuten goserik pasa.

6. Baserriko produktuekin errenta ordaintzen

- **Erref:** MUT-086/013
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:11:58. **Bukatu:** 00:12:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Kontxiren gurasoak baserriaren maizterrak ziren. Geroago erosi zuten baserrria, baina ordura arte sindikatuan entregatzen zuten uztaren parte bat eta urtean behin baserriko jabeari errenta ordaintzen zitzaion, oiloak eta oilaskoak ere emanaz.

7. Mutrikurekin harreman gutxi

- **Erref:** MUT-086/014
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:12:47. **Bukatu:** 00:14:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Errazionamendu-kartilla zuten eta Debara joaten ziren janari bila. Mutrikun bizitza gutxi egiten zuten. Aguazilaren abisuak ematera emakume bat hurbiltzen zitzaien baserrira, txapel gorria jantzita. Margarita Ronda zen, "Errondanekuak".

8. Deban eskolan, "Cara al Sol"

- **Erref:** MUT-086/015
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:14:49. **Bukatu:** 00:16:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolara Debara joaten ziren. Maistra erdalduna zen. "Cara al Sol" kantatzen zuten egunero bandera ipinita.

9. Elizako kanta mojetan

- **Erref:** MUT-086/016
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:16:45. **Bukatu:** 00:17:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Hamabost urtera arte egon zen eskolan eta gero mojetan jarraitu zituen ikasketak eskolaratze-kartilla lortu arte. Mojetan elizako kanta abesten ziren, banderari inoiz.

10. Osabak, soldadu nafarrei ezinikusia

- **Erref:** MUT-086/020
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:21:02. **Bukatu:** 00:22:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Osabak gerrako kontu asko kontatzen zituen. Soldaduak pasatzen ziren baserritik eta asko italiarrak izan arren, nafarrei ezinikusi berezi bat zien. Soldadu mutil koxkor batek mehatxatu egin zuen armarekin.

11. Lasaoko kobazuloan ezkutatu egon zen lehengusuaren bizitza I

- **Erref:** MUT-086/022

- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:22:42. **Bukatu:** 00:25:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Batzarrik onenak "Erdikoan" eta "Lekonden" izaten ziren. Osabaren lehengusu bat Buztiñan ezkutatuta egon zen eta egunero goizeko 5.30etan osabak Lasaoko kobazulo batera eramaten zuen eta iluntzean berriz ere baserrira. Soldaduska ez egiteko Argentinara joan zen bizitzera eta handik Venezuelara. Familiarekin harremana izaten jarraitzen dute. Amadeo Gonzalez Gorostala zuen izena. Haren familiari buruz hitz egiten du.

12. Lasaoko kobazuloan ezkutatu egon zen lehengusuaren bizitza II

- **Erref:** MUT-086/023
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:25:35. **Bukatu:** 00:27:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Osabak eramaten zuen egunero Lasaoko kobazulo batean, soldadutza ez egiteagatik ihes egin zuelako. Haren emaztea eta seme-alabak Buztiñara joaten ziren maiz baina lehengusuak ezin zuen, soldadutzako iheslaria zelako. Azkenean, Donostian zegoen kontsul batek paperak egin zizkion eta Euskal Herrira bueltatu ahal izan zen.

13. Mutriku eta Deba arteko zubian hiletako bedeingakazioa ematen

- **Erref:** MUT-086/025
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:28:46. **Bukatu:** 00:31:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

Buztiña baserritik pasatzen diren bideak aipatzen ditu: "Herribidia" eta "gorputz-bidia" non dauden aipatzen du. Buztiñako jendea hasieran Mutriku lurperatzen zen baina gero Deban. Gaztea zenean, auzoko mutil gazte bat hil zen eta Deban hilobiratzen eraman bazuten ere, Mutrikuko abadea joan zen Deba eta Mutriku arteko zubira eta han bedeingakazio bat egin zuen.

14. Umetan, gerrako kontzientziarik ez

- **Erref:** MUT-086/027
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:32:30. **Bukatu:** 00:33:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Osabak umetan gerrako gauzei buruz hitz egiten bazion ere, eskolan ez zuen ezer esaten. Umea zenez ez zuen gerrako kontzientziarik baina gerora konturatu da gauza gehiago izango zituela osabak kontatzeko.

15. Soldadu ezezagunaren hilobia II

- **Erref:** MUT-086/028
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:33:20. **Bukatu:** 00:34:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Baserri inguruan osabak baserri ondoan hilobiratu zuen soldadu ezezagunaren hilobia beti garbi mantendu dute. Osabak harriak ipini zizkion gainean, txakurren gorpua ateratzen hasi zirenean.

16. Etxeko sinesmenak II: San Juan sua, erramua, lizarra atean....

- **Erref:** MUT-086/030
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:34:58. **Bukatu:** 00:37:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

San Juanak beti herrian eta Artzabalen ospatu dituzte, eta bezperan sua egiten dute baserrian. Loreak, belar-txarrak (asunak, larrak...). Trumoiaren belarra sutara botatzen zuten, tximista eta trumoiaren zegoenean. Atean lizarra ("leizarra") jartzen zuten, gurutzearekin batera. Baratzearen inguruan batzuetan erramu bedeinkatua ipintzen zuten.

17. Etxeko sinesmenak II: eskopeta beheruntz begira jarri Ostiral Santuan

- **Erref:** MUT-086/031
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:37:15. **Bukatu:** 00:38:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Ostiral Santu guztietan, eskopetak kainoarekin behera begira ipini dituzte. Ogia lurrera jausten bazen, gurutzea egin, ogia jaso eta muin egiten zitzaion.

18. Errotara garia ehotzera

- **Erref:** MUT-086/032

- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:38:06. **Bukatu:** 00:39:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Errazionamendua zela eta, errotara joaten zen garia ehotzera eta ogia etxean egiten zen. Ogi koxkorra sutara botatzen zuten Urtezahar egunean. Antzondorra joaten ziren errotara. Kokapena. Kontxiren ama baserrira lehen aldiz heldu zenean ez zekien errota non zegoen, baina astoari jarraituz heldu ziren.

19. Aita anguletan; ilargiaren faseak baratza lantzeko

- **Erref:** MUT-086/034
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:40:11. **Bukatu:** 00:41:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak
- Baserrria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Sugeak behiari errapetik helduta esnea hartzea oso txarra zen behiarentzat, ahituta uzten zuelako. Aita anguletara joaten zen gabez, ilargiaren arabera. Ura piskat zikina egon behar zen. Baratzeko lanetarako, ilargiaren faseak kontuan hartu dituzte baserrian.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com